



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO ABUZTUAREN 28AN BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Abuztuaren 28an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Belouqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Micaela Elizalde, Javier Auza eta Iker Isiegas.

BERTARATU EZ DIRENAK: Julen Beunza eta Alaia Etayo.

Bertaratu dira baita ere Iñaki Lopez eta Isabel Ilarregi Berueteko eta Itsasoko kontzejuetako alkateak hurrenez hurren.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Uztailaren 24ko ohiko batzarreko akta eta uztailaren 31eko ez ohiko aktak deialdiarekin batera bidali zirenak, bildutakoek aho batez onartzen dituzte biak.

2.- Alkate ebazpenak

-2024/91 alkate ebazpena onartuz Beramendiko 2. Poligonoko 41. Lursailean dagoen eraikinaren teilatua berritzeko obrak legeztatzeko, urte bateko luzapena.

- 2024/92 alkate ebazpena obra baimena ematea onatuz Gas Natural GLP-ri, Gartzarongo 6. Poligonoko 9. Lursailea perimetroko hesia jartzeko.

- 2024/93 alkate ebazpena Baimena ematea Argi Malutari bai Aizarotzko Luzia Goñi kultur etxeko erabilera anitzetako gela bai Apeztegiberri eraikineko bigarren solairuko gelak erabiltzeko, yoga ikastaroak burutzeko uztaila eta abuztuan.

-2024/94 alkate ebazpena onartuz, Jose Antonio Arangoa Ciari NAN/ aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

-2024/95 alkate ebazpena onartuz Yesa Ana Bearziri Apeztegiberriko eraikinaren erabilera anitzetako bigarren pisuko gela erabiltzea, urritik maiatzera pilates klaseak emateko, astelehen eta asteazkenetan 17::30etatik 20:30etara.

- 2024/96 alkate ebazpena onartuz obra baimena I de Grupo Iberdrolari Udabeko 1. Poligonoko 23. Lursailera argi hartunea eramatea.

-2024/97 alkate ebazpena onartuz obra baimena Damaris Used-i Olako 8. Poligonoko 196. Lursailean dagoen etxebizitzaren bigarren solairuan egoera txarrean dauden soliboak aldatzeko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arte egindako alkate ebazpenak,

3.- Igoako UA 2 Unitatearen urbanizazio proiektua. Hasierako onespena.

Alkateak azaltzen du Igoako UA 2 unitatea, Leoncio Alsuak sustatua dela eta jada bertan dauden 5 lursailak saldu ondoren, erosleek urbanizazio lanak hasi behar dituzte eta horretarako urbanizazio proiektuaren tramitazioari ekin.Hirigintza batzordean aztertu zen aurkeztutako azken dokumentazioa, udal arkitektoak osatzeko eskatu ondoren. Udal arkitektoak egindako baiezkotako 24/0778. Txostenen zehazten da aurkeztutakoa osatua dagoela eta hortaz urbanizazioari hasierako onespena emateko ez legokeela arazorik. Justifikatzen dute alde batetik, landatu behar dituzten zuhaitzak eta jartzen dituzte udal arkitektoak eskatu bezala ureztatzeko ahoak. Gainera ere kalearen sarbideak 10 metroko zabalera izango duela bermatzen dute.

Hortaz eta 2017/1 FDL-aren 134 eta 74. artikuluen arabera udal arkitektoaren baiezkotako txostena ikusita, bildutakoek hasiera batez onartzen dute Igoako UA 2 unitatearen urbanizazio proiektua.

Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute 20 egun baliodunen epean jende aurrean espedientea egin dadin eta erabakia unitateko sustatzaileei jakinaraztea.

4.- Larraun, Araitx, Imotz eta Arakilgo udalekin langileen deialdi bateratuak kudeatzeko hitzarmena.

Alkateak azaltzen du zonaldeko aipatutako udaleko alkateen egitasmo bat dela aipatutako hitzarmena onartzearena. Hitzarmen honen helburua da egun udaletan dauden ordezkariak zerrendak luzeagoak izatea, azken hilabetetan arazoak sortu izan

direlako egun dauden langileen ordezkapenak betetzeko, hitzarmen honen baitan udal bakoitzak sustatzen duen zerrenda hitzarmenean parte hartzen duten udal guztiek erabili ahal dute. Zerrendetan parte hartzen dutenentzat ere erakargarriagoa da jakitea zerrenda hau Larraun, Araitz, Imotz eta Arakilgo udaletarako balio duela eta ez bakarrik udal baterako, ordezkapen aukerak betetzeko handitzeko direlako.

Hortaz udal bakoitzak beharra duenean sustatzen du deialdia, nahiz eta hitzarmenean bakarrik adierazi garbiketa lanpostua eta administrari lanpostuak direla kudeatuko direnak, hitzarmenaren artikulua batean zehazten da beste lanpostu batzuen beharra badago, hauek ere sartu ahal direla hitzarmenean, adibidez zerbitzu anitzetako lanpostua, nahiz eta Larraunek ez izan, beste udalek lanpostu hori badute bere plantilla organikoan.

Zerrenda bateratuak izango direnez deialdia atera baino lehen udalak haien artean hitz egin beharko dute deialdiaren irizpideak zehazteko eta balorazio mahaia udal bakoitzeko ordezkariak osatzen dutelako ere.

Hortaz bildutakoek hitzarmena aztertu ondoren hartzen duten erabakia da 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 62 artikulua baita eta Larraun, Araitz, Imotz eta Arakilgo udalekin sinatu beharreko hitzarmena onartu eta erabaki hau beste udalei jakinarazi.

5.- Mozioak.

Biziza plataformak ondoren transkribatzen den mozioa bidaltzen du udalak onartzeko eskatuz.

“ Covid 19 pandemia zabaldu zenetik 4 urte igaro ondoren, zuengana jotzen dugu ordezkari publiko gisa. Lau urte hauetan gertatutakoaren balorazio eta azterketa publiko sakon baten alde ager zaitezten proposatzen dizuegu, orduz geroztik gertatutakoa eta guzti horren ondoreioak eta emaitzak agertuko dituen.

Horren guztiaren aurrean, Udalbatza honek, adierazpen instituzional hau onar dezala eskatzen dugu:

Covid 169 pandemia eta bera kudeatzeko hartutako neurri guztien ondoren 4 urte hauek igaro ondoren, balorazio independentea eta azterketa publiko sakon bat egiteko unea dela uste dugu, bai horren guztiaren kudeaketara dagokionez, bai bere emaitzei dagokionez, egun badauden hainbat kezka eta zalantzaren aurrean. Guztion artean eta guztion onerako, gaiari buruzko eztabaida publiko batetik hasita.

Adierazpen instituzional hau Osakidetzako eta Osasunbideako arduradunei bidaltzea eskatzen dizuegu, ebaluazio hori egin dezaten.

Ebaluazio eskaera hori oinarritzeko, Jon Ander Etxabarri Garate Jaunak (Euskadiko biologoen Elkargoko dekanoa) “ Pandemia de la Covid en Euskadi” liburuan jasotako ikerlanaren erreferentzia atxikitzen dizuegu. Haren azala eta kontrazala argitaletxearen estekarekin batera doan, nahi duenak eros dezan:

[https:// editorialdharana.dharana.org/libros/pandemia-de-la-covid-en-euskadi/.](https://editorialdharana.dharana.org/libros/pandemia-de-la-covid-en-euskadi/)”

Bildutakoek testuaren irakurketaren ondoren eztabaida irekitzen dute, alde batetik ez delako garbi gelditzen zen den mozioak onartu beharrekoa, eta bestetik ere udalaren eskumena ez litzateke mozio hau onartzea. Udala ez da tokia mozio honen edukia onartzeko, beste erakunde batzuk egin behar dute mozio honen lanketa. Hau guztia kontutan hartuz bildutakoek erabaki dute ez onartzea irakurritako mozioa eta hau Bizirik plataformari jakinaraztea adieraziz, ez onartzearen arrazoia dela alde batetik, ez delako garbi adierazten zein den mozioaren edukia, zer den onartu beharrekoa eta zein ondorio izango dituen mozio honen onespenez, eta bestetik ere udalaren eskumena ez dela mozio honen onespenez beste erakunde edo elkartearen bitartez egin beharrekoa delako.

Erabaki hau Bizitza Plataformara helarazi.

6. - Batzordeen informazioa.

Kultura Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Azaroaren 17an Apeztegiberrin antzerkia egingo da Euskara Mankomunitateak ordaindua. Perseiden ikuskapena burutu zen abuztuaren 12an Beruete, Aizarotz eta Itsaon.

Bertso saioa ere Azaroaren 9an Apeztegiberrin burutuko da.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Adinduen yoga ikastaroari hasiera emango zaio urrian eta hortaz Basaburua eta Imotzko 60 urtetik gorakoei gutuna bidaliko zaie izena emateko epea adieraziz. Batzordeak adostu du ikasturte honetan ikastaroaren ordainketaren erdia urrian kobratuko dela eta beste erdia urtarrilean.

Rokodromoa egiteko laguntza ukatu dute, kreditu faltagatik.

7.- Informazio orokorra.

Cedernarkin bilera egin du alkateak 2025. Urterako PDR deialdirako proiektuak pentsatzen hasteko. Gutxieneko gastua 20.000 eurokoa izan behar duela azaltzen du eta laguntza %75koa izango litzateke.

Ez dira onartzen laguntzarako, kirol inbertsioak ez azpiegiturak burutzea.

- Kontzejuekin bilera deituko da Irailaren 3-rako, gaien artean pisten ordenantzen kudeaketa eta kontzejuen artean karpa erostea daude, besteak beste.
- Egun esleipen prozesuan dauden obren irekiera irailaren 2an finkatzea adosten dute bildutakoek honako ordutegiarekin:
13:30 Sasturain etxeko obra. Abisatuko dira, M^aMar Ansorena, Esther Lacasta eta Benito Alberro.

14:00 Industriaguneko obren esleipena. Kontratazio mahian dauden Iker Isiegas eta Julen Beunza abisatuko dira.

Eta bukatzeko 14:30etan burutuko da PST programan sartutako bi proiektuen irekiera. Kontratazio mahian dauden Xabier Azpiroz eta Irati Lureri abisatuko zaie.

Ogasun Batzordean erabaki da zordunei gutuna bidaltzea udalarekin duten zorra zenbatekoa den adieraziz eta irailaren bukaera arte epea dutela udalarekin harremanetan jartzeko zorra ordaintzeko arazoak badituzte, egoera horri erantzun bat emateko zorra handitu aurretik. Epe horretan ez badute zordunek ezer adierazten zorra udal buletinean argitaratuko dela ere adieraziko zaie gutunean.

Hezkuntza Departamentuak ez du oraindik ikasturte berrirako eskola garraioa antolatu. Ekainean bilera egin zen departamentuan eta udaleko zerbitzuaren antolamendua aurkeztu zaie azken astetan baina atzera bota dute. Horregatik eta oinarrizko zerbitzu bat denez eta despopulazioa ardatz izanda, Hezkuntza Departamentuko Zuzendari Orokorrearekin bilera bat eskatu du alkateak.

8. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:20 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.